# Bestelako Xedapenak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### Zk-2614

EBAZPENA, 2004ko apirilaren 20koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, Leioako Artaza Jauregia ustiatzeko baldintzak argitaratu eta erabilpen prezioak ezartzen dituena.

1997ko urriaren 14an Jaurlaritzaren Kontseiluak Leioako Artaza Jauregiaren ustiapenerako oinarriak onartu zituen, eta Lehendakaritzari eman zitzaion eraikinaren administrazio eta mantenurako ahalmena. Ahalmen horiek kontuan izanik, Lehendakaritzako idazkariaren 1998ko otsailaren 18ko ebazpen bidez ustiapenerako baldintzak eta erabilerarako prezioak argitaratu ziren. Prezio horiek urtero eguneratu dira.

Ustiapen horren hasieratik hona igarotako urteek, alde batetik, aukera eman digute erabileraren eta erabiltzaileen ezaugarriak eta baldintzak ezagutzeko; eta bestetik, prezioak eguneratzea eta berariazko baldintzak ezartzea komeni dela erakutsi digute. Jauregia Leioako udalean kokatuta egotea eta jauregiak udal horretako biztanleentzat duen esanahi historikoa izan dira berariazko baldintza horien eragile. Izan ere, Kultura, Kirola eta Gazteriaren Batzorde Informatiboaren proposamenez, Jauregia helburu kulturaletarako erabili ahal izateko berariazko baldintzak ezartzeko eskatzea erabaki zuen Leioako Alkatetzak. Berariazko baldintza horiek ezarrita, Leioako herritarrek aukera izango dute bertara sartzeko eta hemendik aurrera, Leioako udalaren eta Lehendakaritzaren artean izenpetutako lankidetzaren bitartez, Leioako udalera erakusketa kulturalak erakartzeko esparrua izango da.

Horregatik guztiarengatik, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1997ko urriaren 14an emandako erabakiaren hamargarren oinarrian ezarrita dagoen aurreikuspenaren babespean, hauxe

EBATZI DUT:

***Lehenengo artikulua.***– Erabilera arauak.

1.– Artaza Jauregia erabiliko da, batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak bultzatutako izaera publikodun ekitaldiak antolatzeko. Subsidiarioki erabilerarako baimena eman ahal zaie beste administrazio edota erakunde publikoei edo pribatuei izaera profesionaleko eta garrantzia sozial edo korporatiboa duten ekitaldiak burutzeko.

# Otras Disposiciones

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### N°-2614

RESOLUCIÓN de 20 de abril de 2004, del Secretario General de la Presidencia, por la que se publican las condiciones de explotación del Palacio Artaza de Leioa y se fijan los precios de utilización.

Con fecha 14 de octubre de 1997 el Consejo de Gobierno aprobó las bases de explotación del Palacio Artaza de Leioa, atribuyendo a Lehendakaritza las facultades propias de administración y mantenimiento del inmueble. En base a estas facultades, por Resolución de 18 de febrero de 1998, del Secretario de la Presidencia, se publicaron las condiciones de explotación y se fijaron los precios de utilización, precios que han sido anualmente actualizados.

Los años transcurridos desde el inicio de esta explotación permiten conocer las características y condiciones de las utilidades y de los usuarios y aconsejan una actualización de los precios y el establecimiento de condiciones específicas. Estas condiciones específicas derivan de la ubicación del palacio en el Municipio de Leioa y de la especial significación histórica que este Palacio tiene para los habitantes del Municipio. Estas circunstancias han hecho que la Alcaldía de Leioa aprobara una Resolución, a propuesta de la Comisión Informativa de Cultura, Deportes y Juventud, solicitando el establecimiento de unas condiciones específicas para la utilización del Palacio con fines culturales. Ello permitiría el acceso de la ciudadanía de Leioa a un inmueble que ha representado durante años un lugar inaccesible y que puede convertirse ahora, fruto de la colaboración entre el Ayuntamiento de Leioa y Lehendakaritza en un marco para el acercamiento de exposiciones culturales al servicio del municipio de Leioa.

Por todo lo cual, y al amparo de la previsión establecida en la Base Décima del Acuerdo de Consejo de Gobierno de 14 de octubre de 1997,

RESUELVO:

***Artículo Primero.***– Normas de Uso y Utilización.

1.– El Palacio Artaza se destinará, con carácter preferente, a la celebración de eventos de carácter público promovidos por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Subsidiariamente podrá autorizarse su utilización a otras Administraciones o Entes Públicos o a Instituciones Privadas para la celebración de actos o eventos de trascendencia social o corporativa de carácter profesional.

Salbuespen gisa, Lehendakaritzak baimena eman dezake jauregi hori beste helburu batzuetarako erabiltzeko, horretarako arrazoiak badaude.

2.– Erabiltzaileak ezin izango du eraikinean obrarik edo dauden instalazioen aldaketarik egin. Egingo den ekitaldiarengatik instalazio osagarri edo aldi baterakorik jarri beharko balitz edo dauden instalazioen aldaketaren bat beharko balitz, horretarako baimena izan beharko dute.

*Bigarren artikuluak.–* Bermeak.

Lehendakaritzak egokiak iruditzen zaizkion bermeak eskatu ahal izango dizkie erabiltzaileei, baimen baldintzak behar bezala erabili eta beteko direla ziurtatzeko.

*Hirugarren artikulua.–* Prozedura.

1.– Erakunde publiko edo pribatuek lehenengo artikuluan ezarrita dauden xedeetarako erabili nahi badute Artaza Jauregia, eskaera bidali behar dute Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzako Idazkaritzak duen egoitzara (Nafarroa kalea 2-01007 Vitoria-Gasteiz). Eskaeran honako hauek adierazi beharko dituzte: ekitaldiaren xedea, noiz izango den, ekitaldira joango direnen kopurua eta egoki iruditzen zaizkien bestelakoak.

2.– Eskaera aztertu ondoren, eskatutako erabilpenari baimena ematea edo ez ematea ebatziko du Lehendakaritzako idazkari nagusiak.

3.– Erabilera baimenak epe jakin baterako emango dira. Epe horren barruan izango dira, ekitaldirako behar den denboraz gain, erabiltzaileak ekitaldia prestatzeko behar duena eta egoitza jasotako baldintzetan uzteko behar dena ere.

Baimenarekin batera honako hauek bidaliko dira: erabilpen prezioak eta baldintza bereziak, ekitaldi aurrera eramateko baldintza berezirik onartu behar bada.

*Laugarren artikulua.–* Baldintza ekonomikoak.

1.– 3.000 euro izango da eraikina erabiltzeko indarrean dagoen prezioa eguneko, zergak barne, 2004ko abenduaren 31 arte.

2.– Urtean zehar egindako kontratazioa 4 egunekoa baino gehiagokoa bada, horrek %40aren beherapena ekarriko du.

3.– Prezio horiek Lehendakaritzak berariaz ezarritako tokiak, zerbitzuak eta instalazioak erabiltzeari dagozkio.

Ekitaldiaren beharrak egoki betetzeko, Jauregian dagoen dotazioan berariaz azaltzen ez diren zerbitzu eta instalazio osagarriak edo altzariak erabili nahi baditu erabiltzaileak aldi batean, Lehendakaritzari eskatu beharko zaio baimena eta ekintza hauetatik ateratzen diren gastuak erabiltzaileak berak ordaindu beharko ditu.

Excepcionalmente, Lehendakaritza podrá autorizar su utilización para otros fines, cuando existan razones de cualquier índole que así lo aconsejen.

2.– Los usuarios no podrán realizar en el inmueble obras o alteraciones de las instalaciones existentes. Cuando por razones del acto a celebrar precisen la realización de instalaciones complementarias o temporales, o la modificación de las existentes, habrán de ser expresamente autorizados para ello.

*Artículo Segundo.–* Garantías.

La Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza podrá exigir a los usuarios la prestación de las garantías que estime necesarias para asegurar el uso correcto y el cumplimiento de las condiciones de la autorización.

*Artículo Tercero.–* Procedimiento.

1.– Las Instituciones públicas o privadas interesadas en la utilización del Palacio Artaza, para los fines establecidos en el artículo primero, dirigirán solicitud en tal sentido a la Secretaría de la Presidencia del Gobierno Vasco C/Navarra, 2-01007-Vitoria-Gasteiz, especificando el contenido del acto, las fechas de utilización, el número de personas asistentes y cuantos otros aspectos se estimen convenientes.

2.– A la vista de la solicitud, el Secretario de la Presidencia, resolverá autorizando o denegando la utilización solicitada.

3.– Las autorizaciones de uso se otorgarán por plazo determinado. Este plazo abarcará, además del tiempo empleado en la celebración del acto o evento de que se trate, aquel que requiera el usuario para la preparación de los locales y su entrega en las condiciones recibidas.

A la autorización se acompañarán, además de las tarifas correspondientes, las condiciones particulares que sea preciso aprobar en función de la naturaleza del acto de que se trate.

*Artículo Cuarto.–* Condiciones Económicas.

1.– El precio, impuestos incluidos, que regirá en la utilización del inmueble por día, hasta el 31 de diciembre de 2004, será 3.000 euros.

2.– La contratación de más de 4 días a lo largo del año dará derecho a un descuento del 40%.

3.– Estos precios se corresponden estrictamente con el uso de los espacios físicos ubicados en las zonas establecidas a tal efecto por Lehendakaritza, y de los servicios e instalaciones existentes.

Los servicios e instalaciones complementarias, y mobiliario no contemplado expresamente en la dotación existente en el Palacio y que el usuario desee incorporar temporalmente, en función de las necesidades y exigencias propias del acto, requerirán para su instalación la autorización previa de Lehendakaritza, asumiendo los usuarios los costes derivados de dichas actuaciones.

4.– Preziook hurrengo urteetara ere luzatuko dira, besterik onartu ezean.

*Bosgarren artikulua.*– Ordainketa.

Jauregia baimendutako baldintzetan erabiltzeagatik egin beharreko ordainketa honela egingo da: baimenaren jakinarazpena jaso ondoren, prezioaren %50a sartuko da Euskal Herriko Diruzaintza Nagusian; eta ekitaldia bukatu eta dagokion faktura jaulki ondoren, beste %50a sartuko da diruzaintza horretan.

*Seigarrena.*– Baldintza bereziak

1.– Leioako udalarentzat honako baldintza espezifikoak onartu dira: laugarren artikuluan onartutako baldintza ekonomikoei buruzko %50eko beherapena eta ekintza kulturaletarako urtean zehar 15 egunetan doan erabiltzeko aukera.

2.– Lehendakaritzak beste erabiltzaile batzuekin Artaza Jauregia erabiltzeko baldintza espezifikoak adostu ahal izango ditu, beti ere, onura publikorako bada edo erabiltzaileak erakunde publikoak edo irabazi-asmorik gabeko elkarteak badira.

*Zazpigarren artikulua.*– Erantzukizunak.

1.– Erabiltzaileei dagokie antolatu behar duten ekitaldirako behar dituzten baimenak edo lizentziak lortzea.

2.– Erabiltzaileek eraikina jasotako egoera berean utzi beharko dute; eta kalteren bat balego, beraiek izango lirateke erantzuleak.

3.– Betiere, Artaza jauregia erabiltzeko baimenak ebazpen honetan ezarritako ustiapen baldintzak eta kasuan kasuko baldintzak onartzea dakar, baita baldintza ez betetzetik datozen ondorioak ere.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko apirilaren 20a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JESÚS PEÑA MARTÍNEZ.

4.– Estos precios se prorrogarán automáticamente para años sucesivos salvo nueva aprobación.

*Artículo Quinto.*– Pago.

El pago por la utilización del Palacio, en las condiciones que en cada caso se autoricen, se efectuará mediante ingreso en la Tesorería General del País Vasco del 50% del precio, tras la notificación de la autorización, y el 50% restante una vez concluido el acto y previa emisión de la correspondiente factura.

*Sexto.*– Acuerdos específicos.

1.– Para el Ayuntamiento de Leioa se aprueban unas condiciones económicas específicas consistentes en un descuento del 50% sobre las condiciones económicas aprobadas en el artículo 4 y el uso gratuito de 15 días anuales para la celebración de actos culturales.

2.– Lehendakaritza podrá acordar condiciones específicas con otros usuarios si se tratase de utilización del Palacio Artaza para fines de utilidad pública, o por parte de entes públicos e instituciones sin ánimo de lucro.

*Artículo Séptimo.*– Responsabilidades.

1.– Corresponde a los usuarios la obtención de cuantas autorizaciones o licencias sean precisas para la celebración del acto o evento que se vaya a llevar a cabo.

2.– Los usuarios deberán entregar el inmueble en las condiciones recibidas, siendo responsables de los daños que pudieran causar.

3.– En todo caso la autorización para la celebración de un acto en el Palacio Artaza supone la aceptación de las presentes condiciones de explotación y de las condiciones particulares que en cada caso se aprueben, así como de las consecuencias que de su incumplimiento pudieran derivarse.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de abril de 2004.

El Secretario General de la Presidencia,
JESÚS PEÑA MARTÍNEZ.

## Zk-2615

EBAZPENA 2004ko apirilaren 30ekoa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, Latinamerikako euskal gizataldeen gazteriaren prestakuntzarako laguntzak emateko egiten dena.

125/2003 Dekretuak, ekainaren 10ekoak, euskal gizataldeen gazteria prestatzeko laguntzak arautzen dituenak bere 4. artikuluan ezartzen du diru-laguntzen deialdia urtero egingo dela Lehendakaritzako idazkari nagusiaren ebazpen bidez.

## N°-2615

RESOLUCIÓN de 30 de abril de 2004, del Secretario General de la Presidencia, por la que se convocan ayudas para la formación de la juventud de las Colectividades Vascas de América Latina.

El Decreto 125/2003, de 10 de junio, por el que se regulan las ayudas para la formación de la juventud de las Colectividades Vascas, establece en su artículo 4 que dichas ayudas se convocarán anualmente mediante Resolución del Secretario General de la Presidencia